

AEK EUSKARA ETA KULTURA

AEKren euskalduntze planen betebeharrak ez dira euskaltegietakiko ikastaroetara bakarrik murrizten. Izan ere, AEKren printzipioetako bat euskal kultura sustatzea eta ikasleak euskal kulturara hurbiltzea da. Zeregin honetan AEK aitzindari da eta horren adibide argia Euskal Herriko hainbat herritan urtean antolatuta izan den AEKanpada da.

Horrela, AEKak bi maila nagusi ditu kultur egitarauak antolatzeko orduan:

Batetik Euskaltegiek auzoetan eta herrietan antolatzen dituzten kultur egitasmoak. Bilboko Li-

zardi euskaltegiak, adibidez, Literatur Jazz ekitaldiak, antzerki saioak edo kontzertuak antolatzen ditu urtean zehar. Beste ekimen batzuk Santutxuko poesia jardunaldiak, Gaupasa Jaia Iruñeko Irrintzi euskaltegiaren eskutik edo Sopelako esaera zaharren txapelketa dira.

Bestetik, maila nazionalean aurrera eramaten diren egitasmoak daude eta arlo honetan Korrika Kulturala da aipagarriena. Korrika hasi baino lehen Euskal Herriko herri desberdinetan kontzertuak, zinema emanaldiak edo erakusketak antolatzen dira ekimen honen bitartez.



“Euskararen 7 bekatu nagusiak” antzeslana
“Kutsidazu Bidea, Isabel” antzezlan arrakastatsua adibidez, 13. korrika kulturalean eduki zuen abiapuntua.

Korrika-AEK Beka inizatiba berriak, 2 urte baino ez ditu eta proposamen kultural berriei bultzada emateko laguntza moduan sortu zen. Horrela, Korrika 13an Eneko Olasagastiren “Metxa” antzezlana izan zen irabazle eta aurtengo II. Korrika-AEK Beka irabazlea Olatz Beobidiren “Euskararen 7 Bekatu Nagusiak” izan zen. **F**